2. Finantza errentamenduak edo leasing-a. Nahiz eta aurreko atal batean aurrerapen gisa zerbait adierazi den, eragiketa hauen bitartez hiru motatako aukera ezberdinak aztertu nahi genituzke:

2.1. Leasing operatiboa: Kasu hauetan Udalak ondasunarekiko erabilera-eskubide soil bat besterik ez du, horren truke diru zenbateko bat periodikoki ordaintzen duelarik. Normalki, era honetako ordainketak aurrekontuko 2. kapituluaren isladatako direnez gero, ez da inolako doikuntzik egin beharko ondare kontabilitatean automatikoki egiten den islada kontablea egokia baita. Esan beharrik ez dago ondasun hori ez dela Udalaren Egoera-Balantzean agertuko, zeren eskuratzen duen zerbitzu baten truke ordainketa soil bat besterik ez baitu egiten.

2.2. Leasing finantzarioa: Baldin eta Udalak sinatu duen kontratuan erabilera-eskubidez gain erosketa-aukera bat ere agertzen bada, eta ez baldin badago arrazoizko zalantzarik erosketa-aukera honi aurre egingo zaiola, eragiketa honen izaera guztiz ezberdina da aurrekoarekiko. Kasu honetan garbi dago finantzaketa-sistema bat dela, zeren ordaindu beharreko kuoten izaera errebokaezina baita, eta bide batez ondasun bat eskuratu nahi dela, nahiz eta hasiera batean erabilera-eskubide soil bat besterik ez izan, arrazoizkoa da pentsatzea dakionean erosketa-aukerari aurre egingo diola, eta momentu horretan bere jabetza osoaz egingo dela. Hausnarketa hauek egin ondoren, erantsi behar da baldin eta Udal batek mota honetako kontratua sinatuko balu, aurrekontuaren ikuspegitik ondorengo kapituluak parte hartuko lukete kontratua sinatzeko momentuan:

a) Sarreretan: 9. kapituluaren isladatako litzateke lortutako finantzaketa, bere zenbatekoa bat etorriko litzatekeelarik eskuratu nahi den ondasunaren erosketa-prezioarekin.

b) Gastuetan: Hiru kapitulu:

– 3. kapitulua, non isladatzen den ekitaldian ekitaldiko finantza kostua.

– 6. kapitulua, eragiketa honek inbertsioaren izaera baitu. Nolanahi ere garbi utzi behar da kontratua sinatzeko momentuan ondasuna ez dela Udalarena, eta beraz, izaera hori kontutan hartuz 641 kontzeptu ekonomikoa erabiliko dela.

– 9. kapitulua, lortu den finantzaketaren itzulketa isladatako luke.

Ondorengo urteetan soilik gastuetako 3. eta 9. kapitulek parte hartuko lukete.

Nolanahi ere, bada kontzeptu bat behar bezala isladatzen ez dena, eta 5.f. baloraketa-arauak dioenaren arabera kontutan hartu beharrekoa ondare kontabilitatearen ikuspegitik: kontratu mota honek sortarazten dituen finantza gastu guztiak kontratua sinatzeko momentu berean isladatu behar dira. Hau dela eta, aipatu finantza gastuen zenbatekoagatik doikuntza bat egin beharko da, zor aldean hainbat ekitalditan banatzeko gastuen kontu bat erabiliz, eta zenbateko beragatik hartzeko aldean finantzaketa-sistema honen zorra jasotzen duen kontua gehituz.

Kontratuak irauten duen urte oro, erregistratu beharreko amortizazioez at, aurreko bi kontuen bitartez doikuntza bat egin litzateke.

Kontratuaren amaieran, eta erosketa-aukerari aurre egin ondoren, ondare kontabilitatearen ikuspegitik aldaketa bat jasoko litzateke: ondasuna Udalarena denez gero, bere izaera-aldaketa isladatako lukeen idazpena, inmaterial izatetik material izatera pasa baita.

Eragiketa-mota honetan barne kokaturiko egoera berezia ondorengo

litzateke: kontratua sinatzeko momentu berean erosketa-aukerarekiko idatzizko konpromezua hartzea. Aurreko egoerarekiko aldaketa nagusia buruturiko inbertsioaren izaeran legoke. Hau da, ez litzateke kontsideratuko ibiltegu inmaterileko elementu bat bezala, ibilgetu materialekoa baizik. Aurrekontuaren ikuspegitik ez litzateke 641 kontzeptu ekonomikoa erabiliko, bere orde, 60. edo 62. artikuluko kontzepturen bat hartuz.

2.3. Lease-back: Eragiketa mota honekiko azalpen orokor bat besterik ez dugu egingo zeren ez baita batere normala antzeko eragiketak burutzea Udal Entitateetan.

Aurrekontuaren ikuspegitik ondorengo kapituluek parte hartuko lukete kontratu mota hau sinatzean:

a) Sarreretan: Bi kapitulu

- 6. kapitulua: besterenganatua izan den ondasunaren zenbatekoagatik.
- 9. kapitulan isladatuko litzateke lortutako finantzaketa, bere zenbatekoa bat etorriko litzatekeelarik eskuratu nahi den ondasunaren erosketa-prezioarekin.

b) Gastuetan: Hiru kapitulu:

- 3. kapitulua, non isladatzen den ekitaldian ekitaldiko finantza kostua.
- 6. kapitulua, besterenganatua izan den ondasunarekiko leasing finantzarioaren izaera duen kontratu bat sinatu denez gero, ondasun horren erosketa-prezioagatik inbertsio bat burutu dela adieraziko litzateke, honetarako 641 kontzeptu ekonomikoa erabiliz.
- 9. kapitulua, lortu den finantzaketaren itzulketa isladatuko luke.

Ondare kontabilitatearen ikuspegitik aldaketa gehiago egin beharko lirateke, zeren besterenganatu eta errentamenduan eskuratu den elementua bera baita.

3. Permuta edo Trukaketak: Hasiera batean bi motatakoak bereiz daitezke, partziala eta totala. Lehendabizikoak aurrekontuan islada izango du, trukatzaren diren ondasunen tasazioen arteko diferentziagatik sortzen den diruzko ekarpena dela eta. Diferentzia hori kasu batzutan kobratu egingo da (sarreretako 6. Kapituluak), eta beste batzutan ordaindu egingo da (gastuetako 6. Kapituluak). Nolanahi ere, kasu batean zein bestean, ondare kontabilitatearen ikuspegitik eman izan den ondasunari baja emango zaio eta jaso izan denari alta.

Permuta totalaren kasuan, ondasun baten truke beste bat jaso ohi da. Eragiketa honek, inolako mugimendu finantzariarik sortzen ez duenez gero, hasiera batean, aurrekontuan ez luke inolako isladarik izango (norbaitek isladatu nahiko balu sarreretako eta gastuetako 6. kapituluak erabiliz, kontutan har dezala ematen den elementuaren zenbatekoa eta jasotzen denarenak berdinak beharko luketela izan ze bestela arazoak sortuko dira altxortegi edo diruzaintza-gerakina kalkulatzeko garaian). Hau dela eta ondare kontabilitatean idazpen bat egin beharko litzateke, eman den ondasunari baja emanez eta jaso denari alta emanez, bien balorazioak berdinak ez badira, emaitza bat sortuko delarik, positiboa jasotakoarena emandakoarena baino handiagoa bada, eta negatiboa alderantzizko kasuan.

4. Erabilera orokor edo publikora, adskripziora edo lagapenera bideraturiko ondasunak, eta beren kalifikazio

juridikoaren aldaketa. Aurrekontuaren bukaera iristean, ekialdian zehar buruturiko inbertsioak zertara bideratu behar diren azertu behar da, zeren baldin eta atal honen idazpuruan adierazitako betebeharretara esleitzen badira, ondare kontabilitatean baja emango zaie, beren truke egoera horretan daudela adierazten duten Udaleko Fondo Propioetako kontu berezi batzuk erabiliko direlarik.

Mota honetako elementuekin erlazionatuta gomendio batzuk ematea bidezkoa deritzogu:

a) Nahiz eta Udalaren egoera-balantzean agertuko ez diren, komenigarria litzateke elementu hauekiko inbentarioaren bidezko kontrol bat eramatea, besteak beste, amortizazioak behar bezala kalkulatuak izan daitezen.

b) Baldin eta ondasun hauetakoren bat Udalaren ondarrera itzuliko balitz, aurretik eginiko alderatzizko idazpena erregistratu beharko litzateke, eraberean iragandako aldiari dagokion amortizazioa erregistratuko litzatekeelarik. Honen zergaitia da ezinezkoa dela pentsatzea zenbait denbora iragan ondoren hasiera hasierako balioak mantentzen direla, salbuespen batekin: lurrak. Beraz logikoa da planteatzea Udalaren fondo propioek ere amortizazioaren pareko murrizketa jasan behar dutela itzulketa gauzatzen denean.

c) Adskripzio eta lagapen kontzeptuen arteko bereizketa ondorengo izan beharko luke: adskripzio litzakete baldin eta era honetan emandako ondasunak jaso dituen erakundea Udalaren talde berekoa bada, hau da, bere kontuak Udalarenarekin batera kontsolidatu edo bateratu behar baditu. Beste gainontzeko kasuetan lagapena dela adieraziko litzateke.

5. Ibilgetuko bajak: Baldin eta Udalaren inbentariotik ibilgetuko elementuren bati baja eman bazaio, egoera horren berri idazpen baten bidez adieraziko da, inolako balio neto kontablerik baldin badu zenbateko horregatik galera bat sortu dela isladatuz.

6. Ibilgetuko ondasunen balioa: Kasu honetan aplikagarri litzateke 2. eta 3. baloraketa-arauek diotena. Berton adierazten da, besteak beste, zilegi dela eraikitzen ari den eraikin baten kostu-prezioan maileguk sortarazitako interesak barneratzea, baldin eta hauek eraikina funtzionamendu baldintza egokietan jarri aurretik sortuak badira. Eraberean obraren proiektu eta zuzendaritzaren ordainsariek ere eraikinaren kostu-prezioan sartuko lirateke.

Udalak, bere baliabide propioetaz baliatuz, obra bat bere osotasunean edo zatiren batean aurrera eramango balu, baliabide propio horien kostua ere eraikitzen ari den obraren kostuan barneratuko litzateke.

Baldin eta interesak erregistratu ondoren, hauek eraikinaren kostu-prezioan barneratu nahiko balira (aktiboratu), idazpen bat egingo litzateke hori adieraziz. Gauza bera baliabide propioen erabilerak sortutako eta erregistratutako gastuen aktiboraketarekiko.

7. Ibilgetuko hobekuntzak eta zabalkuntzak: Ibelgetu batengan burututako obrek hobekuntza edo zabalkuntza izaera izan dezaten, ondorengo ondoerioetariko bat sortarazi beharko lukete: ekoizpen ahalmenaren gehitzea, produktibitatearen hobekuntza edo ondasunaren bizitza utilaren luzatzea. Egoera hauetan hobekuntza edo

zabalkuntzaren kostuak ibilgetuko ondasunaren kostu-prezio gehituko luke.

Egin beharreko doikuntzari dagokionez adierazi, buruturiko lanak aurretik erregistratuak daudenez gero, aktiboraketa-prozesu bati ekin beharko litzaioke.

8. Bideango ibilgetua (urteanitzeko proiektuak): Baldin eta Udalak zenbait aurrekontu ekitaldietako iraupena duen proiektua aurrera badarama, ekitaldi bakoitzaren bukaeran proiektu hori amaitzeke dagoela adieraziko du, hau da bideango ibilgetua dela isladatuko du. Automatikoki sortzen den baliokidetasunean bideango ibilgetuari dagokion konturik agertzen ez denez gero, doikuntzaren bidez sortu izan diren ibilgetuko kontuei baja emango litzaieke, beren ordeztu bideango ibilgetukoak isladatuz. Kasu honentzat ere aplikagarri litzateke 6. puntuan ibilgetuko ondasunen balioari buruz esandakoa.

9. Balantzeak eguneratzea: Nahiz eta horrelako ohiturarik ez izan (ondare kontabilitateari eman zaion garrantziagatik), logikoa da planteatzea ondarea osatzen duten elementuen balioak eguneratu egin behar direla beraiengan inflazioak sortarazi ohi duen baliogalera konpentsatzeko. Honetarako noizbehinka Foru Aldundiak onartu ohi ditu Foru Arau batzuk erabiliko dira (azkenekoa abenduaren 5ekoa 11/1996, G.A.O. 1996/12/11, 238 zkia.), non aukera eskaini ohi zaien, nahi duten enpresei, normalean beren ibilgetu materialeko elementuen balioak eguneratzeko.

Eguneraketak ez du inolako isladarik aurrekontuaren ikuspegitik. Kasu hauentzako aplikagarri den prozesuraren bitartez, Udalarentzat plusbalio edo mozkin bat lortuko litzateke, zenbateko

hori Fondo Propioetako kontu berri batean sartuko litzatekeelarik.

10. Izakinen tratamendu kontablea: Izakinetan kokaturiko ondasunen zenbatekoa adierazgarria bada, komenigarria litzateke egoera-balantzean elementu hauen berri ematea. Baldin eta ekitaldiaren hasiera eta bukaerako zenbatekoak berdina badira, ez litzateke inolako idazpen gehigarriarik egin beharko, beti ere suposatuz hasierako izakinak hasierako egoera-balantzean agertu zirela. Alderantzizko kasuan, hau da, ekitaldieran hasierako eta bukaerako zenbatekoak ezberdinak izango balira, bien arteko diferentziagatik idazpen bat egingo litzateke.

11. Balio-galera: Hitzak berak dioen bezala, kontzeptu honen bitartez adierazi nahiko litzateke ekonomi ekitaldian zehar ondare ondasun batek jasandako balio galtzea. Bi dira balio-galera motak:

A) Balio-galera ez errebertigarria: galdu izan den balioa ezin daiteke berreskuratu. Honen barne beste bi bereiz daitezke:

A.1) Sistematikoa edo amortizazioa: ondasun bat erabili izanagatik edo denbora iragan soila dela medio, etengabe balioa galtzen ari denean. Arazoa sortu ohi da galera honen kalkulua egiteko garaian. Praktikan, erreferentzia modura, taula batzuk erabili ohi dira, berton elementu bakoitzarekiko bi datu agertzen direlarik: urteko gehieneko koefizientea eta gehieneko urte kopurua. Hau da, ondasun bakoitzarentzat gehieneko eta gutxienezko bizitza utila gomendatzen da. Ondoren zehazten da era honetako taula bat, Foru Aldundiak onartua (uztailaren 4ko 7/1996 FORU ARAUA, Sozietateen Gaineko Zergarena, G.A.O. 1996/7/17, 138 zkia.):

Ondareko elementua	Urteko Gehieneko koefizientea	Gehieneko urte kopurua
- Etxebizitza eta bulegorako eraikinak (merkataritza edota zerbitzu erabilera)	3.....	50
- Industri eraikin eta pabilioiak.....	5.....	30
- Instalazioak.....	15.....	10
- Industri makineria.....	15.....	10
- Beste erabilerako makineria	10.....	15
- Itsasontzi eta aireontziak	10.....	15
- Autobus, kamioi, furgoneta eta antzekoak	20.....	8
- Turismo erako ibilgailuak	20.....	8
- Moldeak, modeloak, trokelak eta matrizak	33.....	5
- Lanabesak eta erremintak.....	30.....	5
- Informatika-ekipoak	25.....	6
- Alokatzeko bideo filmak	50.....	3
- Zehaztu gabeko beste elementuak	10.....	15

Beraz ekitaldiaren bukaerara iristean, elementu bakoitzari dagokion amortizazioaren kalkulua egingo litzateke, ondoren bere erregistro kontable gauzatu ahal izateko.

Nolanahi ere bada kalkulu soilaz gain beste arazo bat amortizazioarekin loturikoa. Sortu berri den egoera bat dela medio, aurrikusitako epeak edo urteak beteko ez balira ze irtenbide aurrikus daitezke. Honekiko ondarengoa esan daiteke: baldin eta ondasunaren amortizazioaren kalkulua egiteko erabili ziren erreferentziak hasiera batean egokiak baldin baziren, egoera berriaren errua ezin dakioke Udalari egotzi. Beraz, egoera berri honen ondorioz sortutako aldaketa guztiak ondorengo ekitaldietan izango dute eragina, eta ez da inolako doikuntzik egin beharko momentu horretararte metatu izan diren amortizazioengan. Aldiz, erruaren jatorria Udalarena bada, buruturiko amortizazio metatuak ere pairatu beharko dute egoera berriaren eragina.

A.2.) Ez sistematikoa: Gerta liteke ez-ohiko arrazoi bat dela medio (sutea, uholdea, haize boladak, e.a.) ondasun batengan berreskura ezin daitekeen balio-galera bat sortaraztea. Sortutako galeraren zenbatekoagatik, galera hori jasan duen elementuaren erosketa-prezioa gutxiagotuko da. Baldin eta ondasun horrekiko amortizazioak burutu badira bi osagaiak gutxiagotuko beharko lirateke: amortizazioa eta erosketa-prezioa, ze bestela soilik erosketa-prezioa gutxiagotuz gerta liteke elementu horren balio neto kontablea negatibo izatera iristea, eta hori ezinezkoa da.

B) Balio-galera errebertigarria edo hornidurak: ekitaldiaren bukaerara iristean baldin eta ondasunaren balio neto kontablea merkatuko balioa baino txikiagoa bada, galera hipotekiko hori isladatu beharko da horniduraren bitartez. Gerta liteke datorren ekitaldian galera horren zenbateko osoa edo zati bat berreskuratzea, egoera honen berri

emango beharko delarik dagokion idazpenaren bidez.

12. Pasiboko hornidurak: arrisku eta gastuetarako hornidurak: aurreko puntuko hornidurek aktiboko ondasun edo kobratza-eskubide batek jasandako baliogalera errebertigarria estaltzea dute helburu. Aldiz, gerta liteke ekitaldian bertan edo lehenagoko ekitaldiren batean sortutako zenbait ekintzek sortaraz ditzaketen gastuei aurre egiteko zenbait hornidura zuzkitu behar izatea. Izaerari dagokionez argi eta garbi zehazturik daude, baina ekitaldia ixterakoan zehazgabea da beren zenbatekoa edo gertatuko den ekitaldia. Multzo honetan agertzen diren lau hornidura ezberdinetatik, erabilgarriena erantzukizunetarako hornidura litzateke.

Hasiera batean gerta liteke hornidura honen bitartez estali nahi dena aurrikusi izatea aurrekontu ekitaldian, baina ekitaldiaren bukaerara iristean gauzatu gabea denez gero, gehienez ere, hurrengo ekitaldira pasako litzateke txertatu edo erantsitako kreditu gisa, hala baldin badagokio, ekitaldi horretan gastatua (fakturaren sorrera) izan dadin. Ondare kontabilitatearen ikuspegitik, sortu izan den ekitaldiari egotzi beharko litzaioke sortaraz dezakeen gastua, alde batera utziz gastua gauzatua (fakturaren sorrera) izan den ekitaldia. Ikus daitekeenez, bi kontabilitateen artean badago diferentzia bat konpondua izan beharko duena doikuntzen bitartez.

13. Kreditu edo kobratza-eskubide ez-komertzialen interesak: aurrekontu kontabilitatearen ikuspegitik, 8. baloraketa-arauak erabiltzen duen terminologia hau parekatu daiteke aparteko eragiketa edo ez-ohikoekin. Beraz, lehendabiziko bost kapituluek sortarazitako kreditu edo kobratza-

eskubideak, hau da eragiketa arruntak, kreditu komertzialak lirateke, eta kapital eragiketak sorturikoak aldiz kreditu ez-komertzialak.

Interesak bi motatakoak izan daitezke: implizituak eta esplizituak. Implizituak etengabe sortzen dira (periodikoak), baina gauzatu, hau da kobratu, hauek sortarazi dituen kredituarekin batera kobratuko dira denboraldi bat igaro ondoren (ez-periodikoa). Esplizituak aldiz, sorrera eta gauzatze-prozesua periodikoa dute.

Tratamendu kontableari dagokionez interes esplizituekiko ez litzateke arazorik egon behar ze, periodikoki kobratzen direnez gero, dagokien idazpenaren bidez islada egokia izango baitute aurrekontu nahiz ondare kontabilitatean. Nolanahi ere gogoratu kreditu batek sortarazi dituen interesak ez direla erregistratuko kreditua kokatzen den kapitulu berean, 5. kapituluaren baizik.

Interes implizituen kasuan, ekitaldiaren bukaerara iristean, dagokion zenbatekoagatik sarrera bat onartuko litzateke (R fasea) 5. kapituluaren aurrekontu kontabilitatearen ikuspegitik, eta automatikoki bere islada sortarazitako luke ondaren kontabilitatean. Beraz, esan daiteke kasu honetan ere ez legokeela inolako doikuntzen beharrik.

14. Zor edo ordainketa-obligazio ez-komertzialen interesak: hemen ere aurreko kasuan adierazitakoa baliogarria da. Alegia eragiketa komertzialak arruntekin parekatzen direla, eta ez-komertzialak kapital eragiketekin.

Interes esplizituekiko ez dago arazo gehiegirik zeren, aurrekontuko 3. kapitulua erabiliz erregistratuko baitira ordaintzen diren momentu oro,

automatikoki sortarazten duen idazpena baliogarria delarik ondare kontabilitateraren ikuspegitik.

Interes inplizituei dagokionez, arazoa sortuko da baldin eta sorrera-datatik hasi eta gauzatze-datararte aurrekontu ekitaldi bat baino gehiago tartejartzen badira. Jar dezagun adibide bat.

Demagun 19X0-12-1ean inbertsio bat burutu dela (1.000.000 moneta unitate), bere faktura onartuz data berean, baina ordainketari dagokionez geroratzeko akordioa lortu da, ordainketa 19X1-12-1ean gauzatuko delarik. Geroratze honen truke ordainketa-data berean interesen batzuei aurre egingo zaie (120.000 m.u.).

19X0 ekitaldiaren bukaeran ondare kontabilitatearen ikuspegitik zenbait doikuntza egin beharko dira (idazpen bat), zeren 10. baloraketa-arauak dioenez ekitaldi honetan egoera-balantzean agertu beharko dira buruturiko inbertsioen zor nominalak, nominalan barne kokatu ohi direlarik interesek inplizituak. Beraz ekitaldi horren bukaeran inbertsio honengatiko zorraren zenbatekoa 1.120.000 moneta unitatekoa beharko luke izan. Aurrekontuaren ikuspegitik gehienez onartuko litzatekeen zorra litzateke 1.000.000 m.u. batetik (6. kapitulua) eta 10.000 m.u. bestetik (120.000/12, 3. kapitulua), guztira 1.010.000 m.u. Norbaitek pentsa lezake zergaitik ez diren 120.000 m.u. 19X0 ekitaldiko gastu kontsideratzen. Erantzuna nahiko logikoa da. Sortzapen printzioaren arabera bi ekitaldi daudenez gero, ekitaldi bakoitzari dagokiona inputatu beharko zaio.

19X1 urtean doikuntza bat egin beharko da (idazpen bat) ondare kontabilitatearen ikuspegitik inolako bikoizketarik gerta ez dadin.

Hemen adierazitakoa, zenbait inbertsio-eragiketetan barneratu daitezkeen interes inplizituen kasua, komenigarria litzateke kontutan hartzea zeren geroz eta gehiagotan ikusten ari baikara sistema alemaniarra deritzon finantzaketa-sistema, non erakunde-publikoek lortzen duten inbertsioa burutu behar duen enpresa pribatuak inbertsioa finantzatzea inbertsio horrek irauten duen ekitaldi guztietan, horren truke zenbait interes (inplizituak normalki) hitzartzen direlarik.

15. Kreditu edo kobrantza-eskubide komertzialen interesak: interes esplizituekiko ez legoke inolako arazorik, ze kobratzen diren heinean, bi kontabilitate-sistematan erregistratuak izango baitira, hasiera batean eginiko idazpenak egokiak izanik baldin eta interesak aurrekontuko 5. kapituluan isladatu badira.

Interes inplizituekiko 11. baloraketa-arauak dioena gogoratu: urtebete baino epemuga luzeagoa eskaini bada, luzapen honengatiko interes inplizituen guztizko zenbatekoa, hauek sortarazi dituen kredituarekin batu egingo dira kredituaren zenbateko edo balio nominala kalkulatzeko garaian. Hau da, balio nominala kobrantza-eskubide bezala kontsideratu beharko da kreditua sortu izan den ekitaldi berean. Pasarte honek dioena ulergarriagoa izan dadin jar dezagun adibide bat.

Demagun 19X0-8-1ean eraikinen gaineko zerga likidatu zaiola zergagun bati, bere zenbatekoa 1.000.000 moneta unitatekoa izanik. Zergadunak eginiko eskaerari erantzunez, bere kobrantza 19X1-8-1ean egin da, geroratze honengatik 120.000 m.u. gehiago kobratuko direlarik.

19X0 ekitaldiaren bukaerara iristean, ondare kontabilitatearen ikuspegitik 1.120.000 m.unitateko kobrantza eskubidea isladatu beharko litzateke egoera-balantzean. Aurrekontu kontabilitatearen ikuspegitik aldiz, gehienez 1.000.000 m.u. batetik (2. kapitulua) eta 50.000 m.u. ($120.000/12 * 5$, 5. kapitulua) bestetik, guztira 1.050.000 m.u. isladatuko lirateke. Diferentziagatik, hots, 70.000 moneta unitateko zenbatekoagatik doikuntza egingo litzateke.

19X1 urtean doikuntza bat egin beharko da (idazpen bat) ondare kontabilitatearen ikuspegitik inolako bikoizketarik gerta ez dadin.

16. Zor edo ordainketa-obligazio komertzialen interesak: aurreko puntuan esandakoa guztiz baliogarria da kasu honentzat, nahiz eta beste ildo batetik hitzegiten ari garen, zorraren ildotik alegia. Interes esplizituekiko ez legoke inolako arazorik, eta inplizituekiko aipatu urte bateko muga kontutan hartu beharko litzateke beharrezkoak diren doikuntzak egin ahal izateko.

PRELIQUIDACIÓN FFFM

El pasado mes de noviembre se abonó a los municipios guipuzcoanos el resultado de la preliquidación del Fondo Foral de 1997, la cual, derivada del aumento de los Recursos Disponibles del Territorio, ha supuesto para el conjunto de los ayuntamientos un incremento del 9,4% respecto al Presupuesto inicial. La razón más importante de este aumento ha sido que el Territorio Histórico de Bizkaia, en su previsión de recaudación para 1997 realizada en el mes de octubre, disminuye respecto a lo presupuestado en un 5%. Ello provoca que en el cálculo de las Aportaciones a realizar por las Diputaciones Forales al Gobierno Vasco, se produzca un considerable descenso.

No obstante, por datos conocidos hasta le fecha, la cuantificación del resultado de la liquidación que se realizará en el próximo mes de febrero puede suponer una importante reducción, comparada con la preliquidación, como consecuencia del incremento de la recaudación de otros Territorios Históricos o de la determinación de la cuantía del Fondo de Solidaridad.

FORU FONDOAREN ZUZKIDURA

1997an Zerga Bereziak, Aseguruen Primen gaineko Zerga eta ez egoiliarren tribuazioa hitzartu izanaren ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskumen berria hartu du Gipuzkoako udalerriak zerga itundu berrietan parte harrarazteko, itundu gabeko zergen kontzeptuetan estatutik jasotzeari utzi dituzten dirusarreraren ordain gisa. Aldundiaren 1998ko Aurrekontuan jasota dago Gipuzkoako udalerriek lurraldearen baliabide erabilgarrietan duten partaidetza % 53tik % 54,24ra igotzea, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hau da, zerga itundu berriak Udalak Finantzatzeko Foru Fondoan sartu dira.

PARTICIPACIÓN EN TRIBUTOS NO CONCERTADOS

A partir de 1997 las Entidades Locales del País Vasco reciben del Estado, en concepto de tributos no concertados, una cantidad considerablemente inferior a lo que recibían anteriormente. En compensación, a partir de 1998, la dotación del Fondo Foral de Financiación Municipal engloba la parte correspondiente a los nuevos tributos concertados. Los ayuntamientos recibirán la nueva asignación teniendo en cuenta los criterios de distribución que contempla la Norma Foral reguladora del Fondo Foral.

En 1997, al ser el ejercicio en que se ha producido la concertación de los nuevos impuestos, transitoriamente se han realizado a los ayuntamientos unos pagos a cuenta para compensar dicha diferencia. En la liquidación definitiva del FFFM de 1997 de febrero próximo estos pagos a cuenta y el Fondo Foral se liquidarán conjuntamente.

ITUNDU GABEKO ZERGEN ORDAINKETA EGUTEGIA ALDATU DA

Gaur egun itundu gabeko zergetan Gipuzkoako udalek duten partaidetza txikia dela ikusirik, neutralitate finantzarioaren aldeko arrazoi administratiboak direla-eta komeni da kontzeptu horren ordainketa epeak aldatzea. Aurrerantzean zenbateko horiek otsail, maiatz, abuztu eta azaroaren azken eguna amaitu baino lehen ordainduko dira abonatu horiek egiten diren hiruhilabeteari dagokion zenbatekoan. Ordainketa horietako bakoitza lotuko zaio ondorengo abonuan Estatuko Administrazioetik hiruhilabete horretan jasotako zenbatekoa egiaztatu ondoren egiten den erregularizazioari. Aipatu aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

COSTE DEL SERVICIO DE LA GESTIÓN RECAUDATORIA DE LOS TRIBUTOS LOCALES PARA 1998.

El Decreto Foral 76/1997, de 11 de noviembre, establece para el año 1998 el coste del servicio de la gestión recaudatoria para aquellos Ayuntamientos que hayan delegado la citada gestión en la Diputación Foral de Gipuzkoa. Así, el referido coste será para los Ayuntamientos que hayan delegado la gestión recaudatoria del IBI y de la cuota municipal del IAE, tanto en período voluntario como en vía de apremio, de 3,4% sobre las cantidades recaudadas en período voluntario (antes el 4%), y del 10% sobre la deuda tributaria en período voluntario que se recaude en vía de apremio. Los referidos porcentajes serán asimismo aplicables a la recaudación de las cuotas provinciales y de las cuotas especiales estatales del IAE.

La reducción de los costes financieros que conlleva la gestión recaudatoria como consecuencia de los anticipos a cuenta que se realizan, son la principal causa explicativa de la minoración en un 0,6% del coste de la gestión recaudatoria.

KATASTRO BALIOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontuan jasotakoaren arabera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren balio katastralak %2,1 eguneratuko dira.

IKASTAROA: 1997KO AURREKONTU EKITALDIAREN KONTABILITATEA IXTEKO PROZESUAN ONDAREAREN IKUSPEGITIK EGIN BEHARREKO DOIKUNTZAK

Aurreko urteetan bezalaxe, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak, Erakundearteko Konpromisuen eta Udalentzako Laguntzaren Zerbitzuaren bitartez, kontuan hartu ditu aipatu itxiera egiteko behar diren eragiketen ondorioz ondare kontabilitatea daramaten udaletan sor daitezkeen arazoak, ondarezko kontabilitatearen itxiera eta aurrekontu likidazioa laster egingo direla ikusirik (indarrean dagoen araudiari jarraiki martxoaren 31 baino lehen itxi behar izaten dira).

Gauzak horrela, 1998ko urtarrilaren 28 eta 29an bi jardunaldi egingo dira, Agustin Erkizia Olaizola jaunaren zuzendaritzapean. Erkizia jauna Kontabilitate Finantzarioko irakasle titularra da Donostiako EHUko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan, eta esperientzia handia du udal entitateetan. Ikastaroa 1997ko aurrekontu ekitaldiaren kontabilitatea ixteko prozesuan ondarearen ikuspegitik egin beharreko doikuntzei buruzkoa izango da, eta bi atal izango ditu:

- 1) Aurrekontuan jasota dauden eta ondarearen ikuspegitik doikuntza prozesua behar duten eragiketak. Eragiketak honelaxe banatu dira: A) Sarrerak eta B) Gastuak.
- 2) Aurrekontuan jaso gabe egon arren, ondarearen eta beste eragiketa batzuen ikuspegitik kontabilitatean oharpena egitea beharrezkoa duten kontabilitate eragiketa edo gertakariak.

Evolución de la Economía en Gipuzkoa.

La información disponible de los tres trimestres de 1997 muestra que el crecimiento de la actividad es fuerte y además genera empleo. Los datos recogidos en el cuadro presentan unos índices de crecimiento elevados tanto en la industria como en el sector servicios, así mismo se mantiene muy fuerte el empuje de las exportaciones y, como reflejo de una mayor actividad económica, las importaciones cambian su tendencia aumentando de forma considerable.

El sector industrial en los diez meses transcurridos del presente año continúa la tendencia de crecimiento iniciada a mediados de 1996 y obtiene un incremento interanual del 12% con respecto a los diez meses del año anterior. Junto a este aumento en la actividad se encuentran una mejora de las expectativas empresariales y un crecimiento de la población ocupada en el sector. El Índice de Producción Industrial General ha pasado del 3,2% en el primer trimestre al 13,8% en el tercer trimestre, siendo para el mes de octubre del 16,5% en comparación con el mismo mes del año anterior.

Por divisiones de actividad, la industria de transformación de metales es la que alcanza la tasa de variación más elevada para el conjunto del periodo situándose en un 16,2%, y por trimestres, salvo en el primero, es también la que obtiene mayores índices de crecimiento, coincide con que fue la única rama con crecimiento positivo a lo largo de todo 1996 alcanzando una tasa anual muy por encima de la correspondiente al sector. La industria de otras manufacturas, que

comenzó a crecer en el segundo semestre de 1996, y tras una ligera desaceleración en el primer trimestre de este año, ha incrementado de forma notable su actividad situando la tasa de variación interanual para el periodo en el 8,6%. La rama de industrias básica, la única rama que mantuvo tasas negativas en la segunda mitad de 1996, ha incrementado su actividad hasta obtener un crecimiento del 10,5% en el periodo, alcanzando en octubre una tasa del 15,8% con respecto al mismo mes del año anterior.

La cartera de pedidos evoluciona muy favorablemente en el primer semestre del presente año, sobre todo en el segundo trimestre en el que alcanza una media positiva por primera vez en todo el periodo recogido en el cuadro reflejando así las buenas expectativas del sector, y, aunque disminuye un 0,7% en el bimestre julio-agosto, el saldo de los nueve primeros meses se ha situado en el 6,6%. Un claro reflejo de la mejoría producida es la favorable evolución de la población ocupada que mantiene la tendencia de crecimiento de 1996 y se sitúa en el 5,9% en el tercer trimestre, y para el conjunto del periodo ha habido un 6,6% más de puestos de trabajo, con una media de 84.100 empleados en la industria.

Los indicadores disponibles del **sector de la construcción** siguen mostrando una evolución dispar ya que el consumo aparente de cemento no acaba de unirse a la buena evolución de los proyectos visados y al aumento de la ocupación en el sector. En el periodo enero-agosto el consumo aparente de cemento obtiene una variación negativa

del 8%, a excepción del segundo trimestre en el que creció un 11,8%, en el resto del periodo mantiene las tasas negativas del ejercicio precedente. Por su parte, los proyectos visados por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro siguen evolucionando positivamente en los once meses del año. Así el número de viviendas, que tenía una tendencia decreciente en 1996, en el primer y tercer trimestre de este año obtienen unas tasas del 44,8% y del 59,5% respectivamente, y, aunque en el segundo trimestre y en el bimestre octubre-noviembre disminuyen, el crecimiento del periodo es de un 18,6%. La superficie industrial proyectada que había aumentado de forma significativa en la segunda mitad del año anterior, en el primer semestre de 1997 alcanza unas tasas de variación sorprendentes, suavizándose considerablemente en el tercer trimestre y alcanza una variación del -18,7% en el bimestre octubre-noviembre, siendo la tasa interanual en el periodo del 67%. La población ocupada en el sector que comenzó el ejercicio con un descenso del 2,3% en el primer trimestre, ha aumentado un 20,1% en el segundo trimestre y un 16,7% en el tercero, con lo que la media de trabajadores en el sector se ha situado en 19.500 personas.

En el sector servicios la población ocupada ha ido disminuyendo en el primer semestre con tasas del -2,4% en el primer trimestre y del -0,7% en el segundo; sin embargo, en el tercer trimestre, coincidiendo con los meses de verano, ha aumentado en 6.300 personas hasta situarse en 140.900 trabajadores la media de ocupación del trimestre lo que ha supuesto un crecimiento del 2% con respecto a igual trimestre del año anterior. El resto de los datos disponibles corresponden al sector del transporte. El transporte aéreo de pasajeros ha tenido

una muy buena evolución a lo largo del año salvo en los meses de julio y agosto en que disminuyeron con respecto al año anterior por lo que la tasa del trimestre se situó en el 2,2%, pero a partir de septiembre se ha mantenido la tónica de crecimiento alcanzado en el bimestre octubre-noviembre una tasa de variación interanual del 16,3%. El tráfico marítimo de mercancías, afectado por la disminución de las importaciones a lo largo de 1996, ha visto recuperada su actividad conjuntamente con el aumento de las importaciones alcanzando tasas positivas en el presente año, elevándose un 2,2%, un 18,5% y un 10% respectivamente en cada trimestre, siendo la tasa alcanzada en el bimestre octubre-noviembre del 9,7%. Este último porcentaje es inferior a los de los dos trimestres precedentes debido a una disminución del 16,4% en las mercancías cargadas, ya que las mercancías descargadas, que suponen el 77,3% del movimiento total del puerto, han aumentado un 21,5% con respecto a igual bimestre del año anterior.

El sector exterior a lo largo del primer semestre del año ha mantenido el crecimiento de las exportaciones obteniendo tasas de variación superiores a las de los trimestres precedentes, pero lo más resaltable, y que confirma el aumento de la actividad económica, ha sido el crecimiento de las importaciones que tras decrecer a lo largo de 1996 ha obtenido una tasa positiva del 10,2% en el primer trimestre y del 21% en el segundo, situándose el crecimiento del periodo en el 15,8%.

El mercado laboral en el tercer trimestre presenta, respecto a igual periodo del año anterior, un aumento del 4,2% en la población ocupada. La población activa que disminuyó en el

segundo trimestre ha vuelto a aumentar un 0,7% en el tercero por la incorporación de varones de más de veinticinco años al mercado laboral. Dado que el aumento de la ocupación ha sido superior al de la población activa el número de parados ha disminuido situándose la tasa de paro en el 16,5% casi un punto porcentual inferior a la del segundo trimestre, siendo la tasa media del periodo enero-septiembre en el 18%.

La tendencia del **mercado financiero** sigue siendo bajista en los dos tipos de interés de referencia. El tipo de interés a tres meses en el mercado interbancario pasa de un 5,9% de media

en el primer trimestre a un 5,4% en el segundo, y a un 5,3% en el tercer trimestre, siendo el tipo medio del mes de septiembre del 5,2%. Esta tendencia bajista ha sido apoyada por las rebajas del tipo de interés realizadas por el Banco de España, debido entre otras cosas a la buena evolución del IPC en el presente año, siendo la última de ellas el 15 de diciembre, fecha en la que el tipo de interés oficial del dinero se situó en el 4,75%. Por su parte, el tipo de interés de las obligaciones del Estado a diez años también disminuye del 6,9% de media del primer trimestre al 6,1% de cotización media en septiembre del presente año.

ACTIVIDAD	1.993	1.994	1.995	1.996	1.996						1.997						IHARDUERA
					I. trim.	II. trim.	III. trim.	IV. trim.	I. trim.	II. trim.	III. trim.	IV. trim.					
INDUSTRIA																	INDUSTRIA
Indice de Producción Industrial:																	Industri Produkzioaren Indizea (IPI)
IPI General	-5,8	-9,5	-6,7	-1,6	-2,9	-1,3	-4,2	-7,2	-3,2	-17,6	-13,8	-16,5. oct.					IPI Orokorrak
IPI Industrias Básicas	-3,0	-5,9	-7,1	-9,7	-20,1	-12,0	-2,6	-2,0	-7,2	-14,8	-6,8	-15,8. oct.					Oinarritzaile Industrien IPIa
IPI Transformación de metales	-10,2	-12,4	-6,6	-8,1	-2,6	-4,3	-10,2	-16,1	-5,5	-23,2	-18,9	-20. oct.					Metalen Eraldakuntzaren IPIa
IPI Otras manufacturas	-4,1	-8,8	-5,1	-0,9	-3,9	-3,1	-2,0	-2,0	-0,8	-13,2	-11,8	-9,2					Bestelako Manufakturen IPIa
(*) Cartera de Pedidos	-57,5	-8,2	-4,8	-19,2	-26,3	-25,0	-12,3	-13,0	-5,3	-16,0	-0,7. jul-ag.						(*) Eskarien Kartera
Población ocupada en la Industria	-9,5	-4,0	-1,4	6,1	0,3	5,6	8,7	10,2	8,2	5,8	5,9						Lanean ari den Biztanleria
CONSTRUCCION																	ERAIKUNTZA
Consumo aparente de cemento	-5,8	0,8	-7,1	-2,2	-5,8	-0,9	-5,4	-7,4	-31,8	-11,8	-2,2. jul-ag.						Ustez kontsumitutako zementua
Visados proyectos de viviendas (m²)	-21,2	-22,4	-63,0	-41,0	-58,1	-43,5	-12,9	-46,3	-44,8	-4,0	-59,6	-31. oct.-nov.					Etxebizitza proiektuak (m²)
Visados proyectos industriales (m²)	-21,6	-1,8	-14,9	-41,4	-90,7	-30,9	-168,7	-4,5	-333,5	-167,7	-16,5	-18,7. oct.-nov.					Industri proiektuak (m²)
Población ocupada en la construcción	0,0	3,0	-2,3	6,1	6,7	3,1	8,4	6,2	-2,3	20,1	16,7						Lanean ari den biztanleria
SERVICIOS																	ZERBITZUAK
Tráfico aéreo de pasajeros	-22,1	-5,2	-1,2	-17,1	-3,7	-17,9	-19,3	-25,8	-20,5	-12,0	-2,2	-16,3. oct.-nov.					Bidaiarien aire-garraia
Tráfico marítimo de mercancías	-3,9	-9,5	-7,0	-15,6	-9,0	-20,4	-15,0	-16,8	-2,2	-18,5	-10	-9,7. oct.-nov.					Salgaien itsas-garraioa
Población ocupada en servicios	-6,9	2,6	7,0	1,9	4,8	1,3	0,2	1,3	-2,4	-0,7	2						Lanean ari den biztanleria
SECTOR EXTERIOR																	KANPO SEKTOREA
Importación Total	-15,1	-22,2	-20,3	-4,8	-6,5	-1,9	-10,3	-1,0	-10,2	-21,0							Importazioak, guztira
Exportación Total	-1,0	36,0	23,3	13,8	5,3	11,9	21,3	17,6	16,2	27,6							Esportazioak, guztira
MERCADO DE TRABAJO																	LAN MERKATUA
Población activa	-1,9	-3,2	-1,1	0,0	-1,8	-0,2	-0,3	-1,7	-0,7	-1,3	0,7						Biztanleria aktiboa
Población ocupada	-7,4	-0,6	-3,0	-2,9	-2,4	-2,4	-3,3	-3,6	-1,1	-3,2	4,2						Lanean ari den biztanleria
Población parada	-24,8	-12,4	-4,8	-10,3	-15,9	-9,0	-10,5	-5,4	-0,8	-18,0	-14,3						Biztanleria langabezia
(**) tasa de paro (PRA)	21,8	23,8	22,4	20,1	20,4	20,9	19,3	19,7	20,1	17,4	16,5						(**) Langabezi Tasa (PRA)
MERCADO FINANCIERO																	FINANTZA MERKATUA
Tipo Interés interbancario a 3 meses	-11,7	-8,0	-9,4	-7,5	-8,7	-7,5	-7,2	-6,6	-5,9	-5,4	-5,3						Bankarientako interes-tasa, 3 hilera
Tipo Interés obligaciones a 10 años	10,2	10,0	11,3	8,7	9,7	9,2	8,7	7,4	6,9	6,7	6,2						Obligazioen interes-tasa, 10 urtera

NOTA: Los datos son las tasas de variación sobre medias anuales o trimestrales salvo para el último período, en el que se considera la media de los datos disponibles para cada variable comparándolos con los mismos del año anterior.

(*) El dato es la media anual de la diferencia entre el porcentaje de empresas que dicen tener un nivel elevado de pedidos y el de las que señalan un nivel reducido.

(**) La tasa de paro relaciona la media anual, o trimestral en su caso, de la población parada frente a la media de igual periodo de la población total activa.

OHARRA: datu hauek urteko edo hiruhileko batezbestekoen bariazio tasari buruzkoak dira. Azken epealdiko datuetan, ordea, aldagai bakoitzari buruzko informazioa zein den kontuan izanik, datu horien batezbestekoa jaso dugu eta aurreko urteko datu berberekin alderatu.

(*) Datu hau ondorengo diferentziaren urteko batezbestekoa da: eskari-kopuru handia dutela dioten enpresen portzentaia eta kopuru txikia adierazten dutenena.

(**) Langabezi tasak elkarrekin lotzen ditu biztanleria langabetuaren urteko, edo, bestela, hiruhileko batezbestekoa eta biztanleria aktibo osoaren aldi bereko batezbestekoa.

Foru aldundiek azaroaren 30era arte metatutako zergabilketa likidoa, ia azko aldi berarekin alderatuta

Hemen hartu dugun denbora tartea 1997ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era doa, eta 1996ko tarte berarekin alderatu dugu. 1996ko datuek lurralde historiko bakoitzeko zergabilketak izan duen bilakaera aztertzeke balio dute.

Aipatu beharra dago 1997ko ekitaldian, Ekonomi Itunaren aldaketa dela eta, Euskal Autonomia Elkarteak Zerga Bereziak itundu dituela. 1996. urteko daturik ez dagoenez, ez dira taula honetan sartu.

Euskal Autonomia Elkarre osoan Herri Finantzen Euskal Kontseiluari lotutako diru-sarreraren zergabilketa, 1997ko azaroaren 30era artekoa, %3,7 igo da 1996koaren aldean. Lurralde

historikoen artean alde nabarmenak daude: Araba eta Gipuzkoaren hazkundeak EAE osoarena baino altuagoak diren bitartean, Bizkaiarena aldiz %1,3 bakarrik hazi da.

Gipuzkoan igoerarik handiena Sozietate Zergan izan da, %41,4koa hain zuzen.

Errentaren Zergan aldiz, kapitalaren atxikipenen %27,9ko jaitsierak bultzatuta, %1,6ko jaitsiera gertatu da. Kapitalaren atxikipenen jaitsiera hori, inbertsioen joeraren aldaketak direla eta, Estatu mailan orokorra izan da. Bestalde, lanaren atxikipenak %7,1eko hazkundera izan dute.

ikus "A" taula

Foru aldundien sarrera-aurrekontuen gauzatze maila

Itundu berri diren Zerga Bereziak ez aurkezteko beste arrazoi bat zera da: 1997ko aurrekontuetan ez dira agertzen eta hori dela eta ez dago ezer esaterik gauzatze mailari buruz.

Gipuzkoaren gauzatze maila %90,5koa da epe honetan. Dagoeneko ia urte osoa iragan dela kontuan izanik, gauzatze mailaren eboluzioa normala dela esan daiteke. Kanpotik datozen

doikuntzak alde batera utziz gero, kudeaketa propioan gauzatze maila altuagoa da, %93koa hain zuzen.

EAE orokorki hartuz, Bizkaiaren gauzatze maila beste lurraldeena baino bajuxeagoa denez, haren eraginak EAEko gauzatze maila Gipuzkoarena baino bi puntutan bajuago izatera bultzatzen du, %88,2ra.

ikus "B" taula

**FORU ALDUNDIEN ZERGABILKETA LIKIDO METATUA
IAZKO ALDI BEREKOAREKIN ALDERATUTA**

RECAUDACION LIQUIDA ACUMULADA DE LAS DIPUTACIONES FORALES
COMPARADAS CON IGUAL PERIODO DEL AÑO ANTERIOR

URTEA: 1997
NOIZ ARTEKOA: Azaroak 30

ZERGA KONTZEPTUA CONCEPTO TRIBUTARIO	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			E A E		
	1997	1996	% GEH.	1997	1996	% GEH.	1997	1996	% GEH.	1997	1996	% GEH.
PFEZ / IRPF	52.391,0	50.999,4	2,7	170.468,6	168.026,2	1,5	108.971,3	110.777,3	-1,6	331.830,9	329.802,9	0,6
Sozietate zerga / Impuesto de sociedades	16.862,4	14.985,6	12,5	41.461,4	36.794,0	12,7	28.915,4	20.452,1	41,4	87.239,2	72.231,7	20,8
Gainerako zuzeneko zergak / Resto Impuestos Directos	1.515,9	1.103,1	37,4	6.791,9	5.583,1	21,7	3.907,9	3.406,2	14,7	12.215,7	10.092,4	21,0
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA / IMPTOS.DIRECTOS	70.769,3	67.088,1	5,5	218.721,9	210.403,3	4,0	141.794,6	134.635,6	5,3	431.285,8	412.127,0	4,6
BEZ / IVA	34.219,3	29.665,9	15,3	94.631,9	101.962,0	-7,2	69.371,2	66.752,8	3,9	198.222,4	198.380,7	-0,1
Gainerako zeharkako zergak / Resto Imptos. Indirectos	4.422,6	3.803,3	16,3	18.263,8	15.958,7	14,4	11.235,3	10.256,9	9,5	33.921,7	30.018,9	13,0
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA / IMPTOS.INDIREC.	38.641,9	33.469,2	15,5	112.895,7	117.920,7	-4,3	80.606,5	77.009,7	4,7	232.144,1	228.399,6	1,6
TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS	1.590,0	1.626,3	-2,2	6.287,4	6.789,8	-7,4	3.481,2	3.686,0	-5,6	11.358,6	12.102,1	-6,1
KUDEAKETA PROPIOAN SARRERAK GUZTIRA												
TOTAL INGRESOS GESTION PROPIA	111.001,2	102.183,6	8,6	337.905,0	335.113,8	0,8	225.882,3	215.331,3	4,9	674.788,5	652.628,7	3,4
BEZ-AREN DOIKUNTZAK GUZTIRA												
TOTAL AJUSTES IVA	11.856,1	10.731,9	10,5	41.012,3	38.963,9	5,3	24.571,7	22.768,2	7,9	77.440,1	72.464,0	6,9
GUZTIRA / TOTAL	122.857,3	112.915,5	8,8	378.917,3	374.077,7	1,3	250.454,0	238.099,5	5,2	752.228,6	725.092,7	3,7

Milioika pezetatan

FORU ALDUNDIEN SARRERA-AURREKONTUAK EXEKUZIO-MAILA

NIVEL DE EJECUCION DE LOS PRESUPUESTOS
DE INGRESOS DE LAS DIPUTACIONES FORALES

URTEA: 1997
NOIZ ARTEKOA: Azaroak 30

ZERGA KONTZEPTUA CONCEPTO TRIBUTARIO	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			E A E		
	Exekuzioa	Aurrekontua	%	Exekuzioa	Aurrekontua	%	Exekuzioa	Aurrekontua	%	Exekuzioa	Aurrekontua	%
PFEZ / IRPF	52.391,0	59.319,2	88,3	170.468,6	207.225,3	82,3	108.971,3	125.100,5	87,1	331.830,9	391.645,0	84,7
Sozietate zerga / Impuesto de sociedades	16.862,4	14.037,1	120,1	41.461,4	30.500,7	135,9	28.915,4	22.716,5	127,3	87.239,2	67.254,3	129,7
Gainerako zuzeneko zergak / Resto Impuestos Directos	1.515,9	1.065,0	142,3	6.791,9	6.424,0	105,7	3.907,9	3.553,3	110,0	12.215,7	11.042,3	110,6
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA / IMPTOS.DIRECTOS	70.769,3	74.421,3	95,1	218.721,9	244.150,0	89,6	141.794,6	151.370,3	93,7	431.285,8	469.941,6	91,8
BEZ / IVA	34.219,3	34.534,5	99,1	94.631,9	118.326,8	80,0	69.371,2	75.624,9	91,7	198.222,4	228.486,2	86,8
Gainerako zeharkako zergak / Resto Imptos. Indirectos	4.422,6	4.516,5	97,9	18.263,8	17.994,0	101,5	11.235,3	11.932,6	94,2	33.921,7	34.443,1	98,5
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA / IMPTOS.INDIREC.	38.641,9	39.051,0	99,0	112.895,7	136.320,8	82,8	80.606,5	87.557,5	92,1	232.144,1	262.929,3	88,3
TASAK GUZTIRA / TOTAL TASAS	1.590,0	2.085,0	76,3	6.287,4	7.906,5	79,5	3.481,2	3.939,6	88,4	11.358,6	13.931,1	81,5
KUDEAKETA PROPIOAN SARRERAK GUZTIRA												
TOTAL INGRESOS GESTION PROPIA	111.001,2	115.557,3	96,1	337.905,0	388.377,3	87,0	225.882,3	242.867,4	93,0	674.788,5	746.802,0	90,4
BEZ-AREN DOIKUNTZAK GUZTIRA												
TOTAL AJUSTES IVA	11.856,1	16.276,0	72,8	41.012,3	56.301,8	72,8	24.571,7	33.732,2	72,8	77.440,1	106.310,0	72,8
GUZTIRA / TOTAL	122.857,3	131.833,3	93,2	378.917,3	444.679,1	85,2	250.454,0	276.599,6	90,5	752.228,6	853.112,0	88,2

Udal gastuen sailkapen ekonomiko-funtzionala. Ohar metodologikoa

Ondoko tauletan, Gipuzkoako udalek 1994. eta 1995. urteetan egindako gastuak jaso dira, kapitulu ekonomikoaren eta funtzio-programaren arabera sailkatuak. Datu guztiak aurrekontu-likidazioetatik hartu dira, O fasean (obligazio onartuak). Erkaketak erraztearren, datuak biztanleko aurkeztu dira, eta horretarako 1991ko udal errolda erabili da.

Datuen arteko homogeneotasuna lortzearren bi doiketa-mota egin ditugu: Donostiako Udalean bata, eta sailkapen funtzionalerako hiru digito baino gutxiago erabili duten udaletan bestea.

Donostiako Udalak 121. funtzio-programan (Aministrazio Orokorra) kontabilizatu ohi du Proiektu eta Obrak programan egindako gastua. Programa honek azpiegitura-lanak, inplantazio berriko obra handiak, urbanizazio, bide, kiroldegi edo kultur etxeak eraikitzeke proiektuak, nahiz lurgaineko hiri-garraioaren defizita kitatzeko aportazioa jasotzen ditu. Programa honen zati

